BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1454

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 5ekoa, Kiroletako zuzendariarena, Euskal Mendizale Federazioaren estatutuetan egindako aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituena.

Euskal Mendizale Federazioaren estatutuak Euskadiko Kirol-Elkarteen eta -Federakundeen Erregistroan inskribatu ziren 1985eko abenduaren 20an (47. zenbakia), eta erredakzio berria ematen zaie orain.

Euskal Mendizale Federazioak –2011ko maiatzaren 27an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean– bere estatutuen aldaketa onartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Mendizale Federazioaren Estatutuen 3., 5. eta 6. artikuluetan aldaketa onartu eta Kirol-Elkarteen eta -Federakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu hauek honela idatzita gelditzen delarik:

«3. artikulua.– EMFren (Euskal Mendizale Federazioa) egoitza Donostian dago, honako helbide honetan: Errotaburu Pasalekua 1, 9 - Donostia-San Sebastián. 20018 PK. Lurralde historikoa: Gipuzkoa».

«5. artikulua.– EMFren (Euskal Mendizale Federazioa) euskal kirol federatuaren ordezkaria da, dagozkion kirol modalitateetan Estatuan».

«6. artikulua.– Dagokion kirol modalitatea ordezkatzea Estatuan eta, hala dagokionean, federazioa beste erakunde batzuei atxikitzeko era zehatzea».

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 5a.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.